



"2020KO SANFERMINETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA"

Iruñeko Udalak "2020KO SANFERMINETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETArako" deia egiten du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan) xedatzen duenarekin bat.

1.-XEDEA.-

2020KO SANFERMINETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA: 2020. urtean sanferminak iragarriko dituen kartel ofiziala hautatu eta saritzea da lehiaketa honen xedea.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Hona hemen sari-modalitateak:

Sari bakarra

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 3.600 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura:
50/33800/480000

Sari hau ezarri da, 2. klausulan jasotakoaren arabera:

3.600 euroko sari bakarra. Diru kopuru horri PFEZ dela-eta dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketan nahi duen orok hartzen ahal du parte

Egile bakoitzak kartel bakarra aurkezten ahalko du, jatorrizkoa, argitaragabea eta teknika librekoa.

Ezin izanen dute parte hartu lehiaketaren aurreko edizioetan hogeitaz aurrefinalisten artean hautatutako obrek.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:

BAI EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.-

2020KO SANFERMINETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETAN IZEN-EMATEA ON LINE EGINEN DA. PARTE-HARTZAILEEK BERE KARTEL-PROPOSAMENA ETA PARTE HARTZEKO DATUAK AURKEZTU BEHARKO DITUZTE HORRETARAKO PRESTATUTAKO FORMULARIO BAT BETEZ.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

www.pamplonaescultura.es



Webgunearen hasierako orrian, esteka bat gaituko da 2020ko Sanferminetako Kartel Lehiaketa izenburuz, eta haren bidez zuzenean sar daiteke izena emateko formularioan eta oinarriak kontsultatu.

Formularioa hiru hizkuntzatan betetzen ahalko da: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. Formularioan, parte-hartzaileek datu pertsonal guztiak bete beharko dituzte eta aukera izanen dute kartelaren irudia duen artxibo bat igotzeko, JPG formatuan (Neurriak: 820 x 1171 pixel. Bereizmena: 72 pixel/hazbete. Pisia gehienez: 2 MB).

Irudiak kartela erakutsiko du 1000 mm x 700 mm-ko formatuan (BERTIKALEAN), eta honako testu hau eramanen du idatzita:

**PAMPLONA/IRUÑA
SAN FERMIN 2020
6 AL 14 DE JULIO/UZTAILAREN 6TIK 14RA.**

FORMULARIOA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Formulariora www.pamplonaescultura.es webgunearen bidez sartu behar da, Sanferminetako Kartel Lehiaketa izenburuko esteka klikatuta, eta haren bidez zuzenean sar daiteke izena emateko formularioan eta oinarriak kontsultatu.

Formularioa egiteko, gaitutako lauki guztiak bete behar dira agertzen diren ordenan. Asteriskoa daukatenak bete beharrekoak dira.

Lehen eremuak bidea ematen du formularioa egite aldera prestatutako hiru hizkuntzetako edozein aukeratzeko: gaztelania, euskara edo ingelesa.

Hurrengo laukian jakitera eman behar da bakarka edo taldeka aurkezten zaren, eta egindako hautuaren arabera aldatuko dira bete beharreko eremuak.

1. Datu pertsonalak:

- **Banakakoa: Izena, Abizenak, NAN, AIZ, IFK edo besterik, telefonoa eta helbide elektronikoa (bi laukitan errepikatzen da eta beharrezkoa da helbide elektronikoa berrestea).**
- **Taldekakoa: Elkartearen izena, arduraduna, NAN, AIZ, IFK edo besterik, telefonoa eta helbide elektronikoa (bi laukitan errepikatzen da eta beharrezkoa da helbide elektronikoa berrestea).**

2. Jaioteguna eta jaioterria:

- **Data, Herrialdea, Autonomia Erkidegoa, Probintzia eta Herria (Espainia).**
- **Data, Herrialdea (Espainia ez den bat)**

3. Helbidea:

- **Herrialdea, Autonomia Erkidegoa, Probintzia, Herria, Kalea, Ataria, Solairua (hautazkoa) eta Posta kodea (Espainia)**
- **Data, Herrialdea (Espainia ez den bat)**

4. Kartelaren datuak:

- **Kartelaren lema**



- **Kartelaren deskribapen laburra: Kartelaren kontzeptuaren garapen teorikoa eta kartelaren osagaiak, hala nola konposizioa, koloreak, tipografia eta sinbologia. (Labur eta sintetikoki. 200 karaktere, gehienez)**
- **Ibilbide profesionala: curriculum laburra (labur eta sintetikoa. 800 karaktere, gehienez).**
- **Kartelaren irudiaren aurkezpena. Artxibo bakar bat txertatu behar da baldintza hauekin bat:**

Irudiaren formatua: jpg (sistemak ez du onartuko beste luzapenetako artxiborik).

.....Neurriak: 820 x 1171 pixel.

Bereizmena: 72 pixel/hazbete.

Irudiaren tamaina: 2 MB-ko pisua gehienez.

Artxiboak kartelaren irudia bakarrik erakutsiko du, 1000 mm x 700 mm-ko formatuan (bertikalean), eta honako testu hau eramanen du idatzita:

Pamplona/Iruña; San Fermín 2020; 6 al 14 de julio/Uztailaren 6tik 14ra

5. Klikatu lehiaketara aurkeztutako kartelaren egilea izatearen gaineko aitortpena, non esan behar baita, halaber, obra jatorrizkoa eta argitaragabea dela.

Formularioa igortzeko, sakatu horretarako gaitu den botoia. Izapide honek ez du amaitzen izen-ematea. Aditzera emanen dizute mezu elektronikoa bat jasoko duzula (datu pertsonalei buruzko 2. atalean emandako helbidean), eta horra bidaliko dizute formularioaren datuen laburpena.

Mezu horretan, aurkeztutako datuekin bat bazatoz, aukera edukiko duzu BALIOZKOTZEKO ETA IZEN-EMATEA BUKATZEKO.

Hori eginda, bigarren eta azken mezu bat jasoko duzu, non BERRETSIKO BAITA zure parte-hartzea lehiaketan, kartelaren LEMArekin (4. atalean emanda), IDENTIFIKAZIO AGIRIarekin eta lehiaketan erreferentziatzekoa izanen den PLIKA-ZENBAKIarekin batera. Mezu hori izanen da lehiaketan parte hartzeko egiaztagiria.

Halaber, beste edozein bide erabiltzen ahalko da lanak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen arteen.

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta apirilaren 1eko 14:00etan amaituko.

Iruñeko Udalak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotzen baita. Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua beteko du pertsona fisikoen babesaz bezainbatean.

Lehiaketaren plataformara igotako irudiak udal-zerbitzarian egonen dira harik eta lehiaketaren azken fasea amaitzen den arte. Gero, sistematik baztertuko dituzte, salbu eta hautatu dituzten 20renak, zeinak publikoak izan gabe ere, Iruñeko Udalaren artxibo digitalean gordeko baitira, lehiaketaren oinarrien 4. puntua beteko dela bermatzeko.

LEHIAKETA-PROZESUAK DIRAUEAN BITARTEAN EZIN IZANEN DA, INOIZ ERE, JENDAURREAN JAKITERA EMAN KARTELAREN EGILEA NOR DEN.



Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitzen ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorreko zuzendaria.
- Epaimahaikideak: Diseinuaren, komunikazioaren edo arte plastikoen arloko bost profesional eta Iruñeko Udaleko Arte Plastikoetako teknikaria.
- Idazkaria: Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorreko langile publiko bat.

HAUTAPEN-FASEA

Epaimahaiak 20 kartel aurrefinalista aukeratuko ditu. Hautatutako kartel horien plika-zenbakiak Iruñeko Udalaren webguneetan (www.pamplona.es eta www.pamplonaescultura.es) argitaratuko dira, 2020ko apirilaren 7an.

Hautatutako kartel horiek argitaratzearekin batera, kartel horiek ekoiztu eta aurkezteko jarraibideak argitaratuko dira. Kartelak ekoiztita aurkezteko epea 2020ko apirilaren 20an amaituko da.

Iruñeko Udalak bere gain hartuko du kartel horien ekoizpen-kostua, gehienez ere 100 euro ordainduta kartel bakoitzagatik, betiere egileak egindako gastua justifikatzen badu. Horretarako, behar diren jarraibideak emanen dira, eta Iruñeko Udalak lehiaketa ebatzi eta gero ordainduko du kopuru hori. Euskarri zurrun baten gainean egin beharko da kartela, epaimahaiak balorazioa egin dezan, eta gero, erakusgai jartzeko.

Epaimahaia ekoiztutako 20 kartel horiek ebaluatzeko bilduko da, eta zortzi finalistak hautatuko ditu.

Gero, herritarrek parte hartzeko aldia irekiko da, gutxienez hamar egunekoa. Herritarrek banakako botoaren bidez parte hartuko dute, horretarako erabilgarri jarriko diren bitartekoak baliatuta, halako moduz non boto gehien jasotzen duen kartela izanen baita sariaren irabazlea. Hala herritarrek parte hartzeko aldia nola bozketaren prozedura behar den unean eta moduan iragarriko dira.

Instrukzio-organoak organo eskudunari, hau da, Kultura eta Berdintasuneko zinegotzi ordezkariari, aurkeztuko dio sariak emateko proposamena, horrek proposamenaren gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: BAI EZ

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoek baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera



(Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es webgunean kontsultatu ditzakezu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu daitezke, eta hedabide ezberdinetan zabaldu.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Dirulaguntzen Datu-base Nazionala, Iruñeko Udalaren Egoitza Elektronikoa eta Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Iruñeko Udalak beretzat gordetzen du Sanferminak iragarriko dituen kartelean hiriaren armarrria paratzeko ahalmena, edota jatorrizkoan agertzen den armarrria aldatu edo ordezkatzekoa nahiz hori kokalekuz aldatzekoa, kartel saridunaren behin betiko konposizioan.

Halaber, Iruñeko Udalak beretzat gordetzen du kartelean ezinbestean txertatu behar den testuan egon daitezkeen akats ortotipografikoak zuzentzeko ahalmena.

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak lan sariduna eskuratuko du, eta saritutako egileak (edo egileek) saritutako obrari dagozkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak emanen dizkio Iruñeko Udalari, beretako bakarrik. Orobat, Udalak edozein bide baliatzen ahalko du kartelak libreki ustiatzeko, hala nola erreproduzitu, banatu, jendaurrean paratu eta eraldatzen ahalko ditu, Jabetza intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan, halako maneran non eskubidea izanen baitu lana edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ukiezinetan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro –barne hartuta lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzeko, banatzeko edota jendaurrean paratzeko eskubidea ere–, mundu osoko merkatuetan ustiatze aldera.

Eskubide horien artean, berariaz daude sarturik hala lanak online igorri eta zabaltzea nola Internet erako sare digital elkarreragileetan eskura jartzea. Halaber, Udalak edozein motatako merchandising-euskarritan ustiatzen ahalko du kartelaren erreprodukzioa, dela zuzenean dela hirugarren bati ustiaketa hori baimenduta.

Iruñeko Udalak erakusketa publikoak antolatzen ahal ditu lan irabazlearekin eta Epaimahaiak hautaturiko obrekin, zehazteke dauden leku eta egunetan.



Erakusketa egiteko hautatu diren kartelen kasuan, kartelak azken erakusketa amaitu eta ondorengo 30 egun baliodunen epean erretiratu beharko dira, betiere Ziuadelako bulegoarekin (tel.: 948 420 975) harremanetan jarri eta gero.

Lehiaketara aurkeztutako gainerako kartelen irudiak udal-zerbitzarian egonen dira harik eta lehiaketaren azken fasea amaitzen den arte. Gero, sistematik baztertuko dituzte.

Erakusketan ikusgai jarri bai baina saririk jasotzen ez duten obren egileek ez dute eskubiderik izanen, horren truke, inolako diru-ordainik jasotzeko, baina erakusketan obren egileen izenak azalduko dira.

Lehiaketa hau arautzen duten oinarriak ez betetzeak berekin ekarriko du lehiaketatik baztertzea.

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar parte-hartzaileek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro organo emaileak ebatziko du.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.